

LITERATURA UNIBERTSALA



MANUEL RIVAS

Zer nahi nauk, Amore?

Juan Garzia Garmendia

Manuel Rivas

Zer nahi nauk, Amore?

Juan Garzia Garmendia

Itzultzailea

Jatorrizko izenburua:
Que me quieres, Amor?

1. argitalpena: 2026ko uztailean.

© 1995, Manuel Rivas.

© Azaleko margolanarena: 2026, Alain Urrutia.

© Egilearen argazkiarena: Elena Ternovaja (CC BY-SA 3.0).

© Itzulpenarena: 2026, Juan Garzia Garmendia.

© Hitzaurrearena: 2026, Juan Garzia Garmendia.

© Argitalpen honena: 2026, EREIN eta IGELA argitaletxeak.

Maketazioa: Asier Beltza.

Inprimatzailea: Ulzama S.A.

ISBN: 978-84-1093-098-8

LG: D 586-2026

Obra bonen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu.

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso du.

Liburu honen itzulpena Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretuen Elkartearekin Literatur Ondare Unibertsaleko Obra Nagusien Bilduma euskarara itzultzeko sinatutako hitzarmenaren barruan burutu da.



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.



MANUEL RIVAS
1957

AURKIBIDEA

Zer nahi nauk, Amore?	17
Tximeleten mihia	25
Saxo bat lainopean	41
Vermeeren esneketaria	61
Bakarrik hortik zehar	67
Oso zoriontsuak izango zarete	77
Carmiña	89
Misterra & Iron Maiden	95
Habanako kanposantu baztergabea	101
Neska pirata-galtzaduna	107
Konga, konga	115
Gauzak	125
Marrazki bizidunak	129
Lore zuri bat saguzarrentzat	135
Yokoren argia	151

HITZAURREA

Manuel Rivas idazle gailenetariko bat dugu Galiziako poesian eta narratiban; aldi berean landu ditu, bereziki eta sona handiz, istoriogintza eta kazetaritza. Aipatu izan da harrigarria dela desproporzioa Rivasen obrari aitortzen zaion leku gailenaren eta haren literaturari buruzko azterketen eskasiaren artean. Kontuan har bedi, konparazione, gurean Atxaga denaren paretsuko figura dugula Rivas Galiziako literaturan.

Bere obra zabalean, fintasun bereziz biltzen ditu Rivasen bere lurrak bizi dituen aldeak eta aldiak. Harri-garrizko trebeziaztartzen ditu nostalgia eta aldarrikapena, eta ironia gizakoiz janzen hala kexua nola zirrara. Guztira, paisaia eta pertsonaia xeheen karruseletik bistaratuko zaigu Galizia (ari (izan)) denaren isla bizia, testuen atseginean bildurik sakoneko gogoeta.

Zer nahi nauk, Amore? 1995ean argitaratutako kontakizun-bilduma da. Lan honi esker, hainbat sari irabazi zituen Rivasen; besteak beste, Galiziako Torrente Ballester

Saria (1995) eta Espainiako Narratiba Sari Nazionala (1996). Autorearen lehen etapako liburuetariko bat da, *Un millon de vacas* (1989) eta *En salvaxe compañarekin batera* (1994). Bilduma honek izandako arrakastak sendotu zuen Rivas istoriogintzaren bidean.

Zer nahi nauk, Amore? honetan, askotariko bizi-zatiak igaroko zaizkigu begien aurretik, XX. mendearen bukaerako Galizian kokatuak, landan zein hirian. Horietatik, gizarte horren aldarteak ezagutuko ditugu, eta, hein batean, mendebaldeko gizarte osoarenak ere bai: kulturaren eta nortasunaren galera; ondasun materialen diktadura; naturarekiko destaina; orotariko indarkeria eta axolagabekeria... Guztietan dabil tartean noski beldurra, gizakiaren funts nabarmen hori, haitzulo ilunetatik etxe orratz dirdaitsuetaraino, beti berdin, beti bera, mozorroak mozorro. Errealitatetik jasotakoak dira ipuinotako kontuak, nahiz eta arrazoimenaren, logikaren edo *normaltasunaren* ulerbide estutik at agertu zenbaitetan itxuraz.

Liburua den istorio multzotik, badira zenbait garapen luzeagoa dutenak eta bereiz aztertzea merezi luketenak: «Tximeleten mihia», «Saxo bat lainopean» eta «Lore zu-riak saguzarrentzat». Lehena da noski ezagunena, baina bereziki hartan oinarrituriko filmarengatik batik bat. Azkenak ere emango luke gaia beste film baterako (galiziar *noir* bat): narkotrafikoaren kontuek badute 1936koen paretsuko irudimen-tira bizia garai berriagootan.

Gaien ikuspegi orokor bat ematen saia gaitetzke, agian, honela etiketatuz aurkibideko izenburuak, hurrenez hurren:

- poligonokumearen ametsak
- 1936ko tximeletantzirudia
- musikamodioa ikasten Galizia sakonean
- arte sofistikatua ukuiluan
- zein adarretatik heldu gurasoak nerabeari
- bihozkadak eta patua
- basotik basatia
- garaian garaikoak
- ameriketa
- Piztitzarra akabatzen
- klase-pailazoak
- krimen-aztarnak
- dietak eta dirua
- narko-polizia autoktonoa
- haurra mundu berrira

Bilduman nabarmentzen diren alderdi batzuk

Zirkulartasuna

Lehen ipuineko gazte kontalari eta protagonista aise pareka daiteke azken ipuineko haur protagonistak izan litzakeen patuetarikoren batekin, hiri ezezagunera aldaturik. Amaiera batekin hasi eta hasiera batekin amaitzen da ipuin-sorta. Formalki nabarmenago, lehen ipuineko azken esaldia lehen esaldia bera da. Kasu horretan, ez da denborarik igaro bi esaldien artean.

Modernitatea

Zirkulartasun hori ez da ageri loturik modernitatearen aurreko gizarteek bizi-irudikatzen bide zuten denbora

zikliko hain aipatuarekin, non urtaroak bakarrik doazen txanda-aldatuz, erritmo eta bizipen beti-berdinez. Aipatu ditugun bi ipuinotan, esplizitua da giro modernoa. Inon aurkitzekotan antzinako gizarte aldagaitzaren aztarna, «Oso zoriontsuak izango zarete» seigarren ipuineko etxezain zerbitzarietara jo beharko dugu; hor ere, ordea, haien nagusi eta nagusion gonbidatuekiko kontrastean. «Carmiña»n, tabernariak kontatzen digu nola haren bezeroak oroimenez irudikatzen dituen gaztetako ibilera –literalki– basatiak: oraingo basotik (edalontzia) orduko basora (mendi-oihana). Gainerako ipuin gehienak ere nabarmen daude kokatuak XX. mendearen amaierako urteetako hiri-giroan, eta mundu zabal gutzira hedatzen dira erreferentziak.

Irekitasuna

Hasieran aipaturiko umearen hizpidetik esana dugu jada ipuinak irekia uzten duela haren etorkizuna haurtzaroaren amaieratik aurrera. Kontu bertsua «Tximele-ten mihia»ko haurraren kasuan; eskolara hasteko garai traumatiko horretatik aurrera, zer? Dugun arrasto bakarra da *berak* kontatzen digula gerotik iraganeko pasadizo larria; kontaeraren ikuspegi eta tonutik atera beharko du irakurleak nola eta zertan den haur hura urteak igarorik. «Neska pirata-galtzaduna ere» aurreko kontalariak oroitzapen horiek jasotzen dituen garaitzuan koka daiteke, istorio hartan jartzen baita abian *Piztitzar* delakoaren diktadura gogorra; modu berezi eta are irekiagoan amaitzen da haren kontrako atentatuaren kontakizuna. «Oso zoriontsuak izango zarete» istorioan

ere, airean geratzen da azkenean kontua. Apur bat behartuz gero irakurketa, mundura datozen haurren patua da ardatzetariko bat liburuan, eta ipuin horrek katebegi bat tarteratzen du istorioen segidan: nerabea–*jaiogabea*–haurra.

Adina

Bidenabar, eta adin-tarte horrekiko ardura biziaren ifrentzutik: helduek ez da ageri jada erremediorik dutenik, onean zein txarrean. Haiek *eginak* daude jada, haur eta nerabeak ez bezala. Azken aurreko ipuina –«Lore zuri bat saguzarrentzat»– berezia da alde horretatik bildumako beste aleekiko, baina areago baiesten du adinen bereizkuntza hori. Kasu horretan, haurra ezagutzetik abiatzen gara, baina ondo heldu izateraino goaz aurrera harekin, bera kontalari, eta hor pertsonaia guztiak daude jada zein bere izaera eta patuan finkatuak, guztiz nabarmen. Ildo berean, ipuin horren amaiera ez da irekia; bai, ordea, guztiz ezusteko eta are (bikainki) antikleimatikoa suspense larriaren buruan. «Bakarrik hortik zehar»en –eta «Misterra & Iron Maiden»en sotiltxoago– zuzenean jartzen dira aurrez aurre bi belaunaldiak: aita (eta ama) eta seme nerabea. Nerabeak gurasoari ala gurasoak nerabeari kontu egin behar dion, eta nola.

Planoak

Errealismo magiko delakoak alde bietatik hauts zitzakeen sinesgarritasun arruntaren legeak: gertaeren aldetik eta perspektibaren aldetik. Kasu honetan, esan liteke ez dela halako gertaera *magiko*, fantasia hutsezkorik

batere; hala dirudikeenean ere, hain zuzen, pertsonaien amets-giroko asmaziotzat datoz emanak, ez objektiboki gertatutzat. Perspektiban, aldiz, asmaziookin batera, bada tarteka prozedura erradikalagorik. Esate baterako, hildako bat kontalari izan daiteke ipuin batean, eta gauzak pertsonaia hitzun beste batean.

Amets hitza era berean da asmo eta irriken beste izena, eta zentzu horretan ere badute leku zabala ipuinotan... literatura guztian bezala noski. Zehazkiago, haien eta errealitatearen ukoen arteko tirabira. Nekez irudika daiteke hori gabeko kontakizunik. Hemen, bakan batzuk baino ez aipatzearren: maitasun ezinezkoak, Errepublika zapuztua, gurasoen eta nerabeen porrotak, haragizko jostailu hautsiak... Eta txiki zapalduaren aha-lerin etsia, klase-tirabiraren ageri gorrian.

Estiloa eta estilizazioa

Ipuinek, kontakizun laburrek, ezaugarri berezko dute nola edo halako *estilizazioa*. Batetik, *trinkotasunera* behartzen dute, gertaerak zorrotz hautatu eta zuhur sintetizatzea, hala haritik aldenduko ez badira. Prozesu horretan, askotariko efektuak gauzatzen dira: denbora murriztea nahiz estutzea; gertalekuaren xehetasunik ez agertzea; pertsonaiak bizpahiru trazuz ezaugarritzea; egintzen tempoa manipulatzea... Garaiotan, badabil genero bat halako prozedurak mimesi arruntetik harago eramateko joera berezkoa duena: komikia. Bada ipuinotan komikien adierazpen-ekonomiaren modukorik, hala eratzen direlarik marrazkirik gabeko hainbat *bineta*, umore-distortsio jostariak eraginik eta halako *pop* efektu batzuk ere bai tarteka.

Horrekin kontrajarria dagoela pentsa baliteke ere, bada kontakizunon idazkeran beste ezaugarri nabarmen bat, olerkiekin lotu ohi duguna: irudi-parekatzea erabiltzea txitean-pitean deskribapenetan. Hala ere, halako figura erretorikoak ez dira ipuinotan apaingarri edo dotorekeria loratu, baizik eta hori ere ipuinen ekonomiaren zerbitzura dago: gutxieneko kontuan, ipuinaren giroaren berri gehitua ematen digute halako konparazio poetiko sarriek: «*zakur-aldra nola azeriaren arrastoan*»; «*John Waynek larre zabalean eta gau izartsuan bezala*»; «*muskuilutegia sutan dago queimada bat nola itsasadarraren erdian*». Hona beste adibide batzuk askoren artekoak, non bat egiten baitute irudi es-tilotsuak eta deskribapen estilizatuak: «*haizeak orbel gisa herrestan baleramatza bezala Zumardiko txolarreak*»; «*haurride txikien begiak hor pizten ziren kandelak santu baten aurrean bezala*»; «*han zihoan berehala orkestraren arima ihesi txantxangorri bat nola dunbots batek durdu-zaturik*».

Konparazio sarriekin batera, bestelako prozedura poetiko ausartago batzuk ere baliatzen ditu Rivasek tar-teka, maila guztietan irakurlearen gaitasunean erakusten duen konfiantzaren seinale: «*Emakumeak irribarre geraniozkoz leihoan*»; «*Zelatan itxaron zuen gauak gasolindegia igaro zuten arte. Gero mutikoak zapi gorri batez mozorrotua ikusi zuen hura*».

Ohar bat baino ez itzulpenaz

Saiatu gara eusten, horrek irakurketa nabarmen oztopatzen ez zuen heineraino, jatorrizko testuak sistematikoki

darabilen puntuazio (arauzkoarekiko) arinduari, funtsezkoa delakoan ipuinon jitean.

JUAN GARZIA GARMENDIA

Manuel Rivas
Zer nahi nauk, Amore?

ZER NAHI NAUK, AMORE?

*Amore, hiri nagokik kexuz
ene damaz, baihator mandatus
lo natzala piztera haren suz
kezka eraginik eta deitore.
Peitua bainau hark ezein tratuz,
zer nahi nauk, Amore?*¹

FERNANDO ESQUIO

Amets egiten dut udako lehen gereziarekin. Nik eman eta hark ahora darama, so geratzen zait begi bero, bekatuzkoz, haragia beretzen duelarik. Bat-batean, musu ematen dit eta ahoaz itzultzen alea. Eta han noa ni betiko ukitua, gereziaren hezurra egun guztian iraulka hortzen teklatuan musika-nota larreko bat bezala.

Gauean: «Badut zerbait zuretzat, laztana».

Haren ahoan uzten dut lehen gereziaren hezurra.

¹ *Amor, a ti venh'ora queixar
de mia senhor, que te faz enviar
cada u dormio sempre m'espertar
e faz-me de gram coita sofredor.
Pois m'ela nom quere veer nem falar,
que me queres, Amor?*

Baina, egiatan, berak ez du nahi ezein tratu nirekin. Musu ematen eta kontsolatzen du nire ama, eta gero kanporantz doa. Egiozue so, hainbeste gustatzen zait nola mugitzen den! Ematen du beti oinetan daramatzala patinak.

Atzoko ametsa, irribarre eragiten zidana anbulantziaren sirenak bidea urratzen zuelarik inora ezerantz, zera, hura patinatzen zebilela landare eta portzelana artean, eta nire beso artera egiten zuela gelditzera.

Goizean, lehen orduan, Hiperrera joana nintzen ikustera. Haren hango lana, kutxazainei diru xehea hornitzea eta mandatuak eramatea sekzioetan zehar. Topatzeko, Kutxa Nagusiaren ondoan itxaron besterik ez nuen. Eta hara han iritsi, airoski patinatzuz korridore argizariztatuan barrena. Bira erdi eman galgatzeko, eta hantxe adats luze beltzarana kulunka uniformeko zaia gorri tolesdunaren konpasean.

«Zer egiten duzu hemen hain goiz, Tino?».

«Ezer ez». Despiste-itxuraz nik. «Janari bila gure *Perlarentzat*».

Beti egiten zizkion mainak txakurrari. Esan beharrik ez ondo aztertua nuela nik dena. *Perlaren* gau-ibilaldia zehaztasun zorrotzez zegoen Lolaren iritsierako ordutegira menderaturik. Eguneko minuturik zoragarrienak ziren, hantxe, Tulipak blokearen atarian, Loreen etxadian, biok mainak egiten *Perlari*. Batzuetan, huts egiten zuen, ez zen agertzen 9:30ean eta nik segi eta segi luzatzen txakurraren paseoa Lola gauetik sortu arte, takoi-joka, bihotza, takoi-joka. Halakoetan oso urduri jartzen nintzen eta andre bat iruditzen hura, nondik ote zetorren?, eta

ni mukizu bat. Amorru biziz sumintzen nintzen neure buruaren kontra. Igogailuaren ispiluan ikusten nuen erretrataturik etorkizunik gabeko alproja bat, ez lanik ez autorik gabea, geldo-geldo hantxe sofari atxikia telebis-taren kaka-buzkantzak irensten, txanpon apurrak txirimizkatzen kaxoi-zokoetan tabakoa erosteko. Une horretan sentipena nuen *Perla* zela uhalari heltzen ziona ni paseoan ateratzeko. Eta amak galdetuz gero zergatik luzatua nintzen txakurrarekin, brau botatzen nizkion bereak eta asto beltzarenak. Ea behingoan ikasten zuen.

Hiperrera joana nintzen, bada, han hura ikusi eta indarberritzera. «Txakurrentzako janaria haur-oihalen ondoko txokoan».

Patinen gainean alde egin zuen, erritmikoki zara-bandatuz adatsa eta gona. Burura etorri zitzaidan bazkalosteko dokumentaletan ikusten diren hegazti migrari horiek, koartza nahiz kurriloak. Egunen batean, dudarik gabe, atzera itzuliko zen nigan pausatzeko.

Dena zegoen kontrolpean. Dombo zain neukan Hiperreko aparkalekuan gau hartan atxitutako bugarekin. Arma erakutsi zidan. Eskuan haztatu nuen. Aire konprimatuzko pistola bat zen, baina egundokoa zuen itxura. Errespetua ematen zuen. Robocop edo gisakoren bat baietz eman nik harekin. Hasieran zalantzan ibiliak ginen imitaziozko piparen edo haren aitarena izandako ehizarako eskopeta moztearen artean. «Kanoi-moztuak gehiago akonjonatzen dik jendea», esana zidan Dombok. Ni hausnarketa luzea egina nintzen kontuaz. «Hara, Dombo, denak izan behar dik bare-barea, garbi-garbia. Eskopetarekin putzaren hurrengoak emango diagu,

jonki edo halakoak. Eta jendea oso urduri jartzen duk, eta urduri dagoenean gauza arraroak egiten zakik jendeak. Mundu guztiak ditik nahiago profesionalak. Nork bere lana egitea duk leloa. Iskanbilarik ez, erdipurdikaririk ez. Profesional gisa. Inola ere ez, beraz, kanoimoztu horrenik. Pistolak hobeto luzitzen dik». Orobat ez zegoen Dombo oso ados aurpegia agerian joatearen kontuarekin. Azalpena eman nion. «Serio hartu behar gaitiztek, Dombo. Profesionalak ez dituk irrigarri geratu zale galtzerdi nahiz txanoak jantzirik buruan». Hunkigarria zen Dombo kankailuak nigan beti izan zuen ustea. Nik neure buruarengan izan banu Dombok nigan zuen ustea, laster zegokeen mundua nire oinetara ahuspeztua.

Agra do Orzáneco merkatuan utzi autoa, eta kirolpoltsak hartu genituen. Eguerdian, kalkulatu genuen bezala, hor Barcelona kalea, oinezkoentzako eta komertziala izaki, leporaino beterik jendez. Erraz-erraza izatekoa zen dena. Banku-sukurtsalaren atea atso barentzat ireki zen, eta berehala atzetik sartu gu. Ondo entseatua nuen dena. «Mesedez, jaun-andreok, ez da zertan larritu. Atrako normal bat duzue hau». Keinu lasai bat egin nik pistolarekin eta bezeria guztia batu zen, txukun eta isilik, seinalaturiko izkinan. Morroi lehiatsu bat teman ari zitzaidan bere diru zorroa eman nahian, baina esan nion gordetzeko, ez ginela gu xixkalari halakoak. «Zuk, mesedez, bete poltsak», eskatu nion ofizioan trebe zirudien enplegatu bati. Aitaren batean ekin hark, eta Dombo, kontu guztia zihoan giro zibilizatuak kutsatua, eskerrak eman zizkion. «Orain, arazorik izan ez

dadin, arren bai arren, ez zaitezte mugi hamar minutuan. Adeitsuak izan zarete guztiak ere». Hala irten ginen, bada, arropa-garbitegi batetik bezala kalera.

«Geldi hor edo tiro egingo!».

Datorrena datorrela, ez galdu patxada. Aurrera nik, kontuak nirekin zerikusirik ez balu bezala. Pauso bat, bi, hiru gehiago, eta ziztuan ospa. Jende gehiegi. Dombodán ez da geratzen pentsatzen. Errugbilari bat bezala doa bidea urratuz. Ni, berriz, beste pelikula batean.

«Geldi hor, kabroia, edo tiro egingo!».

Poltsa irekitik pistola atera, eta patxadaz jiratzen naiz, eskuinarekin apuntatuz.

«Zer dugu? Arazoren bat?».

Lehenago diru-zorroa eskainia zidan morroia. Zoruan finko, zangoak bananduak eta errebolberra niri apuntaturik irmo-irmo, esku biez oratua. Horra profesional bat. Zinpeko jagolea kale-jantzian, dudarik ez.

«Txorakeriarik ez, mutiko. Utzi bertan behera jostailu hori».

Irribarrez nik hari, ezta pentsatu ere. Eta muturrera botatzen diot poltsa, sos guztiak airean, kamera geldoz erortzen. «Jaik kaka, kabroia!». Eta lasterka ekiten diot, jendea izuturik baztertzen, zer zoritxarra, jendea baztertzen eta pasabide madarikatu bat uzten kalean, zulo bat irekitzen, tunel bat aurrean, zulo bat bizkarrean. Erretzen. Liztorraren eztenkada nola.

Anbulantziaren sirena. Irribarrez ni. Erizaina txunditurik begira irribarrez nagoelako. Lola patinatzen arrosaberri eta azalea artean, saloi beiraztatu batean. Niganantz dator. Besarkatzen nau. Gure etxea da. Eta

sorpresa hori eman nahi dit, patinen gainean, zaia gorri tolesduna kulunkatuz aldi berean adatsarekin, gereziaren musua.

Gauean, ateko beiratik zehar irakur dezaket *Pompas Fúnebres*² idazkun argiduna. «*Se ruega hable en tono moderado para beneficio de todos*».³ Dombo, morrosko leial hori, hemen izan da. «Nahigabe laguntasunean», esan dio saminki amari. Ez esan graziarik ez duenik. Cantinflas ematen du. Barrez negar egitekoa. Eta negarra begian begiratu zidan. «Dombo, tentel hori, segi, segi hemendik, erosi sosekin etxe bat saloi beiraztatu eta guzti eta Trinitrón telebista bat kristolako luze-zabal horietarikoa». Eta Dombo negar eta negar, eskuak poltsikoe-tan. Mela-mela eginda baietz utzi dena. Malkoak mahats ale halakoak.

Eta hor da Fa, andre Josefa, pareko pisukoa. Hark bai beti jakin zertan zen kontua. Errieta betierekoa zuen begirada. Baina eskertua nagokio. Txintik ere ez inoiz. Ez onerako, ez txarrerako. Nik agurtu, «Egun on, Fa», eta hark marmar ahopean. Jakinean dago guztiz zer saltsa dabilen munduan. Txintik ere ez, hala ere. Amari lagundu, besterik gabe. *Chester* bat erretzen zuen amarekin arratsean, eta Portoko *Lágrima* bat edaten elkarrekin, ni urrutiko agintearen kargu nengoela. Eta horra hor orain horrela, amari eusten. Noizean behin, niganantz jiratzen da baina ez dit jada errieta egiten begiradarekin. Zeinatu eta otoitz egiten du. Profesional hutsa.

Gutxi falta da dagoeneko. Idazkun argidunean ikusmenean daukat ehorzketen ordutegia. 12:30ean Feánsen.

Lola, amari agur esan, eta hor doa beilatokiko aterantz. Ibiltzeko era hori. Hegan doala dirudi are zapatekin. Koartza edo halakoren bat. Zer, baina? Hara non bat-batean jirutzen den, honantz patinatzen gona tolesdunarekin eta beiran pausatutik geratzen. Txundituz begiratzen dit, lehen aldia balitz bezala arreta jartzen didana.

«Zirraragarria, e?».

«Baina, baina, Tino, ausartzea ere!».

Beroak ditu begiak, bekatuzkoak, eta erdi irekia ahoa.

Amets egiten dut udako lehen gereziarekin.